

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### HERRIZAINGO SAILA

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren, zehapen-espeditenak irekitzen dituzten Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzako ebazpenak jakinarazteko dena.

7309

## Pribatuen Iragakariak

### EJIE SA

LEHIAKETA. Iragakaria, «Ejie SAko Aterpe-Zerbitzua Ustiatzeko Euskarrria eta Laguntza emateko zerbitzu informatikoak» helburu duen zerbitzu-kontratua esleitzekoa (003/2008 espeditentea).

7310

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

#### 1841

51/2008 DEKRETUA, martxoaren 18koa, Akitania-Euskadi Lankidetzaren Funtzari buruzkoa.

Euskadi Europar Batasunean txertatu zenetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Akitaniako eskualdearen arteko lankidetzaren proiektuak bultzatu izan dira. 1990. urtean, jadanik, mugaz gaindiko lankidetzaren protokoloa sinatu zuen Euskadik Akitaniarekin, eta une hartatik bertatik garbi erakutsi zuten elkarlanerako nahia bazutela biek ere, elkarren artean zenbait proiektu komun aurrera ateratzeko. Ez dezagun ahaztu Akitaniako hegomenbaldean badela giza komunitate jakin bat, Euskadiko herriarekin hizkuntzazko nahiz kulturazko lotura oso berezia daukan, arreta eta jaramon berezia eskatzen diguna.

Testuinguru horretan, uztailearen 9ko 410/1991 Dekretuak bien arteko Funtz Komunak eratu zuen, mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuak diruz laguntzeko. Harrezkero urtero-urtero ematen dira laguntzok, eta aldatuta bat ere izan dute, irailaren 21eko 268/1993 Dekretuaren bidez.

Bestalde, 2005eko martxoaren 15ean, Jaurlaritzaren Kontseiluak onespena eman zion EAEko Kanpo Harremanetarako Estrategiari. Estrategia horrek -kanpo ha-

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ANUNCIO por el que se notifican las resoluciones de la Viceconsejería de Seguridad incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, con relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

7309

## Anuncios Particulares

### EJIE, S.A.

CONCURSO. Anuncio para la adjudicación del contrato de servicios que tiene por objeto «Servicios Informáticos de Soporte y Apoyo a la Explotación del Servicio de Albergues de Ejie, S.A.» (Expediente: n.º 003/2008).

7310

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### 1841

DECRETO 51/2008, de 18 de marzo, del Fondo Común de Cooperación Aquitania-Euskadi.

Desde la integración de Euskadi en la Unión Europea se vienen impulsando acciones de cooperación entre el Gobierno Vasco y la región de Aquitania con quien Euskadi, ya en 1990, suscribió un Protocolo de colaboración transfronteriza, poniendo de manifiesto una voluntad de acercamiento a través de la realización de proyectos comunes. No cabe olvidar que en el suroeste aquitano se asienta una comunidad humana cuyos especiales vínculos lingüísticos y culturales con el pueblo de la Comunidad Autónoma del País Vasco reclaman una particular atención y dedicación.

En este marco, por Decreto 410/1991, de 9 de julio, se constituyó un Fondo Común para conceder ayudas a proyectos de cooperación transfronteriza. Dichas ayudas se vienen convocando anualmente, habiéndose producido una modificación en su regulación por Decreto 268/1993, de 21 de septiembre.

Por otra parte, con fecha 15 de marzo de 2005, el Consejo de Gobierno aprobó la Estrategia de Acción Exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en cu-

rreman integral eta koordinatua lortzeko eremuak, jardun-lerroak eta ekintzak zehazten zituen atalean adierazten duenez- lehentasunezko helburutzat dauka Akitaniaren eta Euskadiren arteko mugaz gaindiko lankidetzaz.

Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakidun Araudiarekin (EE) bat etorri, laguntza hauek minimis-tzat hartzen dira enpresentzat, pertsona juridiko edo fisiko jakin bati ematen zaion dirulaguntzaren zenbateko osoa ezin daitekeelako izan 200.000 eurotik gorakoa, hiru ekitaldi fiskaletan zehar. Muga horren azpitik emandako laguntzek ez diotela merkataritzari kalterik egiten edota ez dutela lehia faltsutzen uste da, eta horren ondorioz ez direla sartzen EE Itunaren 87,1 artikulua aplikazio-eremuan.

Akitania-Euskadi Lankidetzaz Funtsaren araudi erregulatzaileak bat etorri behar du laguntzen eta dirulaguntzen inguruan gerora onetsi diren arauekin; horrenbestez, 1991n onartu eta 1993an aldatu zen testu hark eguneratzea behar du beste behin ere.

Horregatik guztiagatik, Lehendakariak hala proposatu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko martxoaren 18an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### 1. artikulua.- Xedea.

1.- Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ematen dituen dirulaguntzak arautzea, hain justu, EAeko eta Frantziako Akitania eskualdeko pertsona fisiko nahiz juridikoen artean mugaz gaindiko lankidetzaz gauzatzeko ematen dituen dirulaguntzak.

2.- Ondoren aipatzen diren arloren batean edo batean baino gehiagotan garatu beharko dira ekintzak:

- I taldea: goi mailako irakaskuntza eta teknologia zentroak: ikerketa aplikatua eta teknologia transferentzia; bekadunak eta ikerlariak trukatzeko; ko-diplomaturak lortzeko prestakuntza. Proiektu horiek enpresa bat sartu ahalko dute lankidetzaz-proiektuan.

- II taldea: ekonomia ekintza-teknologia berrikuntza: teknologia berrietarako inbertsioa; informazio eta komunikazio teknologia berriak; esportazioarako elkarte berriak sustatzea; produktu berriak sortzea; industria lankidetzaz eta enpresen garapena. Nekazaritza; arrantza; turismoa; ingurumena; garraioa.

- III taldea: Prestakuntza-kultura: mugen arteko ekintzak garatzeko prestakuntza; irabazi asmorik gabeko erakundeen arteko lankidetzaz; elebitasun frantses-espainiarra eta euskararen garapena; kirolak; hizkuntzen arloan beste zenbait ekintza; kirola; osasungintza; gizarteratzea.

yo apartado sobre Ámbitos, líneas de actuación y acciones para alcanzar una acción exterior integral y coordinada, se recoge como objetivo prioritario la cooperación transfronteriza Aquitania-Euskadi.

De acuerdo con el Reglamento (CE) N.º 1998/2006, de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, estas ayudas para los casos de empresas son calificadas de minimis, puesto que ninguna ayuda total concedida a una persona jurídica o física determinada superará los 200.000 euros, durante un periodo de tres ejercicios fiscales. Se considera que por debajo de este límite las ayudas no afectan al comercio y/o no falsean la competencia y por consiguiente no entran dentro del ámbito de aplicación del artículo 87 apartado 1 del Tratado CE.

La normativa reguladora del Fondo para la Cooperación Aquitania Euskadi, tiene que adaptarse a la normativa aprobada posteriormente en materia de subvenciones y ayudas, por lo que el texto aprobado en 1991 y modificado en 1993 requiere una nueva actualización.

Por todo lo cual, a propuesta de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el día 18 de marzo de 2008,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1.- Objeto.

1.- El presente Decreto tiene como finalidad la regulación de las ayudas de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la realización de proyectos de cooperación transfronteriza entre personas físicas o jurídicas de la Comunidad Autónoma y de la región francesa de Aquitania.

2.- Los proyectos de cooperación deberán consistir en acciones que se desarrollen en uno o varios de los siguientes ámbitos:

- Grupo I: Enseñanza Superior y Centros Tecnológicos: Investigación aplicada y Transferencia de Tecnología - Intercambio de becarios y becarias y personas investigadoras - Formación para obtención de co-diplomaturas. Estos proyectos podrán implicar una empresa en el Proyecto de Cooperación.

- Grupo II: Acción Económica - Innovación tecnológica: Inversión en Nuevas Tecnologías - Nuevas Tecnologías de la Información y la Comunicación - Fomento de la constitución de agrupaciones para la exportación - Creación de nuevos productos - Cooperación Industrial y desarrollo de empresas - Agricultura-Pesca-Turismo-Medio Ambiente-Transporte.

- Grupo III: Formación - Cultura: Formación tendiente a favorecer el Desarrollo de Actividades Transfronterizas- Cooperación entre instituciones sin ánimo de lucro - Bilingüismo franco-español y desarrollo del euskera- Otras colaboraciones en el ámbito lingüístico-Deportes-Sanidad-Integración social.

**2. artikulua.**– Funtsa eratzea.

Aurreko artikuluan aipatutako laguntzak eman ahal izateko, Akitania-Euskadi Lankidetza Funtsa eratuko da, EAEko Aurrekontu Orokorretan funts horretarako bideratzen den kantitateaz osatuta.

**3. artikulua.**– Proiektuen betekizunak.

1.– Proiektuek bi aldeak bildu behar dituzte beren baitan, hau da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko eskatzaile bat edo gehiago eta Akitaniako lankide bat edo gehiago.

2.– Proiektuei ekiteko epea proiektuok aurkeztu diren deialdiko urtarrilaren 1ean hasi eta dirulaguntza esleitzen duen ebazpena argitaratzen denetik bi hilabetera amaituko da.

3.– Dirulaguntza jasotzen duten ekintzak dirulaguntza emandako urtearen ondoko urteko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dira, nahiz eta data hori igaro ondoren ere proiektua garatzen jarraitu.

**4. artikulua.**– Eskatzaileen betekizunak.

Laguntzak jaso ahal izateko, eskatzaileek honakoa ziurtatu beharko dute, gutxienez:

1.– Egoitza soziala edo administrazio-egoitza EAEn duten pertsona fisiko edo juridikoak izatea -publiko nahiz pribatuak- eskabidea aurkeztu duten urtea baino urtebete lehenago.

2.– Akitania eskualdean administrazio egoitza edo egoitza soziala duen lankide bat gutxienez aurkezteko proiekturako.

3.– Zerga alorreko eginbeharrak eta Gizarte Segurantzaren alorrekoak beteta izatea.

4.– Funttsaren konturako laguntzak eskatzeko, bada-goa aukera hainbat pertsona fisiko edo juridikok, publiko nahiz pribatuk, elkar hartuta jarduteko, proiektu bakar baten titularkide izanik. Hala eginez gero, proiektuaren ordezkaria izendatu beharko dute.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo erakunde autonomoek ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntzarik emategatik horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozedura hori amaitu egin beharko da dirulaguntza hauek eman eta ordaindu ahal izateko.

6.– Eskatzaileek ez dute dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor administratiborik edo penalik izango, eta ez dute horretarako legezko inolako debekurik izango, ezta sexu-bereizkeriagatik ezarritakorik ere (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik Seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritz debekurik, alegia).

**Artículo 2.**– Constitución del Fondo.

Con la finalidad de atender las ayudas citadas en el artículo anterior, se constituye el Fondo Común para la Cooperación Aquitania-Euskadi, que estará integrado por las cantidades que con esta finalidad se consignen anualmente en los correspondientes Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

**Artículo 3.**– Requisitos de los proyectos.

1.– Los proyectos deberán tener carácter bilateral reuniendo uno o varios solicitantes de la Comunidad Autónoma de Euskadi y uno o varios cooperantes de la Región de Aquitania.

2.– Los proyectos deberán iniciarse entre el 1 de enero del año de la convocatoria a la que se presentan y los dos meses siguientes a la publicación de la concesión de la ayuda.

3.– La finalización de las acciones objeto de ayuda deberá producirse antes del 31 de diciembre del año siguiente al de la concesión, sin perjuicio de que el proyecto continúe su desarrollo con posterioridad a esa fecha.

**Artículo 4.**– Requisitos de las personas solicitantes.

Para poder tener acceso a las ayudas, los solicitantes deberán al menos acreditar:

1.– Ser personas físicas o jurídicas, tanto públicas como privadas, con domicilio social o vecindad administrativa en la Comunidad Autónoma de Euskadi, con anterioridad al año con que presentan la solicitud.

2.– Presentar, al menos, una persona copartícipe en el proyecto que tenga la vecindad administrativa o el domicilio social en la Región de Aquitania.

3.– Hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

4.– Podrán así mismo solicitar de forma conjunta ayudas con cargo al Fondo varias personas físicas o jurídicas, tanto públicas como privadas, siendo cotitulares de un proyecto único. En este caso deberán designar un representante del proyecto.

5.– La concesión y, en su caso, el pago de estas ayudas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

6.– Las personas solicitantes no deben encontrarse sancionadas penal ni administrativamente con la pérdida de posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni hallarse incurso en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

**5. artikulua.**– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.– Akitania-Euskadi Lankidetzarako Funts Erkidearen kontura emango diren laguntzak honako gastu hauek ordaintzeko izan daitezke:

- a) Proiektuaren azterketa eta garapen teknikoak eragindakoak.
- b) Proiektua ekipatzeko materialak eta hornigaiak erosteak eragindakoak.
- c) Proiektuaren funtzionamenduak eragindakoak, proiektuaren funtzionamenduan eragina duten langileen barne.

2.– Ezingo dira diruz lagundu honako gastu hauek:

- a) Ibilgetu materialen gastuak.
- b) Inbertsio gastuak,

**6. artikulua.**– Dirulaguntza emateko prozedura.

1.– Dirulaguntza emateko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.4. artikuluan xedatutako lehiaketa-prozedura erabiliko da (Legea azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onetsi zuen).

Dirulaguntza emateko, aurkeztutako eskaerak elkarren artean alderatuko dira, 7. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuz, hurrenkeran jartzeko. Hortaz, balorazio altuena lortu duten eskaerei emango zaizkie dirulaguntzak, harik eta horretara bideratutako kreditua agortzen den arte.

2.– Dena dela, dirulaguntza eman ahal izateko, Akitaniako Eskualde Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak batera finantzatu beharko dute proiektua.

**7. artikulua.**– Baloratzeko eta aukeratzeko irizpideak.

1.– Dirulaguntzak emateko, Akitaniako Eskualde Kontseiluarekin batera aztertuko da proiektuek honako irizpide hauek betetzen dituzten edo ez:

- a) Proiektuaren garrantzia, mugaz gaindiko ezaugarriak kontuan hartuta (40 puntu).
- b) Eskualdeetako garapen politiketan proiektuak duen garrantzia eta eragina, baita erakundeentzat bi lurraldeetan enplegua eta ekintzak sortzeko duen interes ekonomikoa ere (30 puntu).
- c) Proiektuaren garrantzia, bertan parte hartzen dutenak eta bere izaera kontutan hartuta (20 puntu).
- d) Orokortasun irizpidea; hartara, 1. artikuluan diren jardunen alde ugarien bete ditzaten laguntzok (5 puntu).
- e) Proiektuak ez dezala beste dirulaguntzarik izan (5 puntu).

**Artículo 5.**– Gastos subvencionables.

1.– Las ayudas concedidas con cargo al Fondo Común de Cooperación Euskadi-Aquitania podrán estar destinadas a sufragar los siguientes gastos:

- a) Los de análisis y desarrollo técnico del proyecto.
- b) Los correspondientes a la adquisición de materiales y suministros para el equipamiento del proyecto.
- c) Los de funcionamiento del proyecto, incluidos los de personal que efectivamente repercutan en el funcionamiento del proyecto.

2.– No serán subvencionables los siguientes gastos:

- a) Gastos de inmovilizado material.
- b) Gastos de inversión.

**Artículo 6.**– Procedimiento de concesión.

1.– La concesión de las ayudas contempladas se efectuará, por el procedimiento de concurso previsto en el artículo 51.4 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

A estos efectos la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración y selección establecidos en el artículo 7, y adjudicando las ayudas a las que hayan obtenido la mayor valoración, hasta el agotamiento, en su caso, de los créditos asignados.

2.– En todo caso, la concesión de la ayuda estará condicionada a la cofinanciación del proyecto por parte del Consejo Regional de Aquitania y por la Secretaría General de Acción Exterior del Gobierno Vasco.

**Artículo 7.**– Criterios de valoración y selección.

1.– Para la concesión de las subvenciones se valorará conjuntamente con el Consejo Regional de Aquitania, la concurrencia de los siguientes criterios:

- a) Importancia del proyecto en consideración al carácter transfronterizo del mismo (40 puntos).
- b) Importancia e impacto del proyecto en las políticas de desarrollo de las regiones y en relación al interés económico que represente para las instituciones en la creación de empleos y actividades en los dos territorios (30 puntos).
- c) Importancia del proyecto en consideración al carácter y a las personas participantes en el mismo (20 puntos).
- d) Un criterio de globalidad, a fin de que las ayudas cubran el más variado campo posible de las actividades recogidas en el artículo 1 (5 puntos).
- e) No concurrencia de otras ayudas o subvenciones al proyecto (5 puntos).

2.– Aukeratze prozesuan onartzeko, eskabideek 30 puntu lortu beharko dituzte gutxienez.

**8. artikulua.**– Dirulaguntzak kuantifikatzea.

1.– Emandako dirulaguntza ez da inoiz izango eskatzailearentzat proiektuak izango duen kostuaren erdia (% 50) baino gehiagokoa.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa balorazio eta aukeraketa fasean lortutako puntuazioaren ehunekoaren arabera zehaztuko da, aurreko paragrafoan ezarritako muga gainditu gabe.

**9. artikulua.**– Kudeaketa-organoa.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokio laguntza-araubide honek dakartzanak kudeatzea eta kontrolatzea.

**10. artikulua.**– Dirulaguntza deialdia.

1.– Urtero egingo da dekretu honetan araututako dirulaguntzak emateko deialdia, Lehendakarietzako Idazkaritza Nagusiko titularrak emandako ebazpenaren bidez.

2.– Urteroko deialdi-ebazpen horretan zehaztuko dira ekitaldi horretan dirulaguntzetara bideratzeko zenbat dagoen aurrekontuetan, eskaerak aurkezteko lekua eta epea, baita eskaera formalizatzeko eredia ere. Ebazpen horretan, halaber, 12. artikuluan aipatzen den Ebaluazio Batzordea osatuko duten kideak ere izendatuko dira.

**11. artikulua.**– Dirulaguntza eskaerak.

1.– Funtsaren kontura emango diren dirulaguntzak eskatzeko, dirulaguntzen deialdiko ebazpenean zehaztutako baldintzak bete beharko dira, gutxienez, honako hauek:

a) Eskatzaileen identifikazioa eta informazioa, bai eta Frantziako Akitania eskualdeko lankideena ere.

b) Proiektuan elkartu direnen ordezkotza egingo duen pertsona edo entitatearen izendapena, horrela deanean.

c) Proiektuaren ezaugarriak eta aurrekontuari buruzko informazioa.

2.– Eskaerekin batera, deialdiko ebazpenean eskatzen diren dokumentuak ere aurkeztu beharko dira. Edonola ere, eskatzaileek honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta dituztela frogatzen duen agiria, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko ekainaren 19ko Aginduan eta urteroko eguneratzeetan ezarritakoaren arabera.

b) Zinpeko aitortpena, egiaztatzen duena eskatzaileari ez zaiola dirulaguntza publikoak eskuratzea eragoz-

2.– Para ser admitidas en el procedimiento de selección las solicitudes deberán obtener al menos 30 puntos.

**Artículo 8.**– Cuantificación de las ayudas.

1.– Las subvenciones que se concedan no podrán alcanzar más del cincuenta por ciento (50%) del coste del proyecto para la persona solicitante.

2.– La concreta determinación del importe se efectuará en función al porcentaje de la puntuación alcanzada en la fase de valoración y selección, con el límite indicado en el párrafo precedente.

**Artículo 9.**– Órgano de Gestión.

Corresponderá a la Secretaría General de Acción Exterior, la realización de las tareas de gestión y control que conlleva el presente régimen de ayudas.

**Artículo 10.**– Convocatoria de ayudas.

1.– Anualmente, mediante resolución de la persona titular de la Secretaría General de la Presidencia, se procederá a convocar las ayudas reguladas en este Decreto.

2.– La resolución anual de convocatoria determinará el importe de la consignación presupuestaria destinada para el otorgamiento de las subvenciones en el ejercicio correspondiente, lugar y plazo de presentación de solicitudes, así como el Modelo para su formalización. La resolución designará, asimismo, a los miembros de la Comisión de Evaluación a que se refiere el artículo 13.

**Artículo 11.**– Solicitudes de ayudas.

1.– Las solicitudes de ayudas con cargo al Fondo contendrán los extremos que se determinen en la Resolución de convocatoria incluyendo al menos, los siguientes:

a) Identificación e información sobre los solicitantes y sobre los cooperantes del proyecto en la región francesa de Aquitania.

b) Designación, en su caso, de la persona o entidad que represente a las agrupadas en el proyecto.

c) Información sobre las características y presupuesto del proyecto.

2.– Las solicitudes deberán ir acompañadas de los documentos que se requieran en la resolución de convocatoria. En todo caso las personas solicitantes deberán presentar los siguientes:

a) Certificación de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social y de las obligaciones tributarias, en los casos previstos en la Orden del Departamento de Hacienda y Administración Pública de 19 de junio de 2006 y en las correspondientes actualizaciones anuales de la misma.

b) Declaración jurada de no estar incursas en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que

ten duen zigor administratiborik edo penalik ezarri, eta ez daukala horretarako legezko inolako debekurik, ezta sexu-bereizkeriatatik ezarritakorik ere (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik Seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritik ezarritako debekurik, alegia).

**12. artikulua.**– Aurkeztutako eskaerako akatsak konpontzea.

1.– Dirulaguntza eskabideak ez badaude oso-osorik beteta, edo aurreko artikuluan adierazitako agiri guztiak ez bada kartza, interesdunari eskatuko zaio hamar laneguneko epean akats hori betetzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko; halaber, adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

2.– Epe hori igarota, jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada edo akatsa zuzendu ez bada, eskaeran atzera egin dela ulertuko da, ebazpen batean hala erabakita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 42. artikuluan jasotako moduan.

**13. artikulua.**– Ebaluazio Batzordea.

1.– Aurkeztutako eskariak aztertzeke, Ebaluazio Batzordea eratuko da, dirulaguntzak emateko deialdiaren urteroko ebazpenean izendatuta. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren aldetik, Batzorde horretan, gutxienez, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko titularraren egongo da (edo berak eskuordetutakoa), batzordeburu bezala, bai eta Europako Gaietarako zuzendaria (edo berak eskuordetutakoa) eta Lehendakartzako teknikari bat ere. Bestalde, Akitaniaren aldetik batzorde horretan zein egongo diren, Akitaniako Eskualde Kontseiluko agintari eskudunak erabakiko du.

2.– Ebaluazio Batzordeak aztertuko ditu aurkeztutako eskaerak, bai eta baloratuko ere, ebazpen honen 7. artikuluan proiektuak baloratzeko eta aukeratzeko ezarritako irizpidean arabera. Ebazpen-proposamena eskumena duen organoari helaraziko zaio ondoren, ebazpena eman dezan.

**14. artikulua.**– Dirulaguntza ematea.

1.– Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiaren titularrak ebatziko du dirulaguntzen esleipena, Ebaluazio Batzordearen proposamena aztertu ondoren.

Ebazpen horren I. eranskinean dirulaguntzak jasoko dituzten proiektuen zerrenda agertuko da; II. eranskinean dirulaguntza jasoko ez duten proiektuen zerrenda agertuko da zergatiarekin batera.

2.– Deialdiaren baldintzak bete arren deialdiko diru baliabideak agortzeagatik diruz lagundu gabeko programak geratzen badira, ebazpenak III. eranskinean gehienez beste hamar proiektu jaso ditzake, lehentasun or-

conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, ni en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

**Artículo 12.**– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

1.– Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación que se indica en el artículo anterior, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición.

2.– Transcurrido dicho plazo, a contar desde el día siguiente al de su notificación, sin subsanar el defecto o aportar la documentación requerida, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 13.**– Comisión de Evaluación.

1.– A fin de analizar las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Evaluación, designada en la Resolución anual de convocatoria de las subvenciones. Por parte de la Comunidad Autónoma de Euskadi está Comisión estará integrada, al menos, por la persona titular de la Secretaría General de Acción Exterior, o persona en quien delegue, como Presidente, por el Director de Asuntos Europeos, o persona en quien delegue y por una persona técnica de Lehendakartzako teknika gaitaria. La autoridad competente del Consejo Regional de Aquitania designará a las personas que integrarán la Comisión por parte de Aquitania.

2.– La Comisión de Evaluación analizará las solicitudes presentadas y las valorará en base a criterios de valoración y selección, establecidos en el artículo 7 del presente Decreto. La propuesta de resolución se elevará al órgano competente para su resolución.

**Artículo 14.**– Concesión de la subvención.

1.– La persona titular de la Secretaría General de la Presidencia, a la vista de la propuesta efectuada por la Comisión de Evaluación, resolverá la adjudicación de las ayudas.

Dicha Resolución, contendrá en su anexo I la relación de proyectos subvencionados. En el anexo II se relacionarán los proyectos a los que no se les concede la ayuda, con indicación de las razones para la denegación.

2.– En el supuesto que quedasen proyectos que, cumpliendo los requisitos de la convocatoria, no pudieran ser atendidos por agotarse los créditos asignados a la misma, la Resolución podrá incluir en su anexo III,

denaren arabera, uko egiterik izanez gero ordezeko izan daitezten.

Proiektu horiek ordezkapen ordenaren arabera zerrendatuko dira; proiektuon titularrak identifikatuko dira; eta onuradunen batek uko eginez gero dirulaguntzak izan dezakeen gehieneko diru kopurua zehaztuko da. Dirulaguntza hori ez da uko egiteetatik letorkeena baino handiagoa izango.

3.– Ebazpen honek administrazio bidea amaituko du eta eskatzaileei banaka jakinaraziko zaie. Denak jakinaren gainean egoteko, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, urteko deialdia egiteko ebazpenak indarra hartu duenetik sei hilabete igaro baino lehen.

4.– Dirulaguntzak ebazteko eta horren berri emateko epea sei hilabetekoa izango da gehienez, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori igarotakoan interesdun erakundeak inolako ebazpenen berririk jasotzen ez badu, dirulaguntza eskabidea gaitzetsizat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan jasotakoaren arabera. Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bitartez aldatu zen..

#### 15. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek ondorengoak bete beharko dituzte:

1.– Emandako dirulaguntza onartu. Hain zuzen, onartutzat emango da dirulaguntza, baldin eta dirulaguntzaren esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean, pertsona edo erakunde onuradunek dirulaguntza horri berariaz eta idatziz uko egiten ez badiot.

2.– Emandako dirulaguntza eskatutako helburua betetzeko bakar-bakarrik erabili, 19. artikuluan ezarritakoa aplikatzekoa ez bada behintzat.

3.– Bankuko kontu berezi eta berezi bat ireki, diru-sarrerak eta gastuak nahiz horien deskribapena eta gauzatze-datak bertan agertzeko. Diru-sarrera eta gastu horien frogagiriak Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren esku egongo dira, edozein unetan behar izanez gero ere.

4.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak deialdi bakoitzaren kontura jasotako dirulaguntzak direla-eta informazioa eskatzen dietenean, informazio hori eman, erakundeok bere egitekoak bete ditzaten.

5.– Eusko Jaurlaritzaren esku utzi aurkeztutako proiektuaren zenbateko guztiaz eginiko gastuen frogagiriak kopiak. Originalak eskatzaileak berak gordeko ditu kontabilitatearen fitxategian, Eusko Jaurlaritzak ikuskapenik egin nahi balu ere.

una relación de un máximo de diez proyectos en orden de prelación para la suplencia en caso de renuncia.

Respecto de tales proyectos, relacionados por el orden de suplencia, se identificarán los titulares y se expresará el importe máximo que en caso de renuncia de algún beneficiario podría alcanzar la ayuda, que nunca sería superior a lo que resulte de las renunciaciones.

3.– La Resolución, que agotará la vía administrativa, se notificará individualmente a los solicitantes y se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco para su general conocimiento antes de transcurridos seis meses desde que surta efectos la Resolución anual de convocatoria.

4.– El plazo máximo para resolver y notificar las subvenciones será de seis meses contados a partir del día siguiente al de la publicación de la Resolución. Si transcurrido este plazo no hubiera sido notificada a la Entidad interesada Resolución alguna, podrá entenderse desestimada la petición de subvención, de conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero.

*Artículo 15.*– Obligaciones de las personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas en el presente Decreto deberán cumplir, en todo caso, las siguientes obligaciones:

1.– Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de diez días naturales tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la subvención, las personas o entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

2.– Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida, salvo que resulte de aplicación lo establecido en el artículo 19.

3.– Abrir una cuenta bancaria específica y separada que refleje el importe de los ingresos y gastos, así como su descripción y fechas receptoras. Los comprobantes de estos ingresos y gastos estarán a disposición de la Secretaría General de Acción Exterior en cualquier momento.

4.– Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a cada convocatoria.

5.– Poner a disposición del Gobierno Vasco los justificantes de gasto que cubran el importe total del proyecto presentado guardando los originales en su archivo contable para cualquier inspección por parte del mismo.

6.– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari jakinarazi, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik xede bererako ematen duen dirulaguntza edo laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero.

7.– Diruz lagundutako edozein programari buruz argitaratutako publizitate guztietan, baita programa horien argitalpenetan ere, Eusko Jaurlaritzak lagundu duela jakinarazi.

#### 16. artikulua.– Bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk helburu bera lortzeko eman ditzakeen beste laguntza batzuekin.

2.– Nolanahi ere, dirulaguntzen bateragarritasunak ez du gainfinantzatzerik ekarriko. Gainfinantzatzerik izanez gero, dagokion mugaraino gutxituko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

#### 17. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Honelako zati hauetan ordainduko da dirulaguntza:

a) Esleitutako dirulaguntzaren % 25a, dirulaguntza onartu ondoren. Dirulaguntza onartu dela ulertuko da, jakinarazi zenetik 10 egun natural igarota uko egitea formalizatu ez bada.

b) Gainontzeko % 75a, diruz lagundutako jarduera osoaren justifikazioa jaso eta egiaztatuta ondoren, 18. artikuluan ezarritako terminoen arabera.

2.– Uko egiterik izanez gero, dena batera ordaindu ahalgo zaie ordezkoei guztizko kopurua.

#### 18. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Dirulaguntza jasoko duten erakundeek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte diruz lagundutako jarduera bukatu ondoko sei hilabeteetan, eta betiere, hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen:

a) Diruz lagundutako programa, jarduera edo ekintza nola gauzatu den azaltzen duen txosten zehatza.

b) Diruz lagundutako proiektua gauzatzeko eragindako gastuak justifikatzeko dokumentuak.

2.– Egiaztagiria onartzeko, argi eta garbi azaldu beharko dituzte honako hauek: gastua eragin duen kontzeptua bera, noiz gertatu zen, eta agiria nork eta nori emandakoa den. Jatorrizko dokumentuak edo, bestela, fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira.

3.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea ekarriko lukeen gorabeherarik ez bada behintzat, justifikatu beharreko zenbatekoek aurkeztutako aurrekontuaren % 100ekoa estali beharko dute.

6.– Comunicar a la Secretaría General de Acción Exterior la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera administraciones o entes, tanto públicos como privados.

7.– Indicar, en cualquier soporte publicitario, de los programas que hayan sido subvencionados, así como en las publicaciones correspondientes, la colaboración del Gobierno Vasco.

#### Artículo 16.– Compatibilidades.

1.– Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada.

2.– En todo caso, de la compatibilidad con otras subvenciones no podrá derivarse sobrefinanciación. De producirse esta, se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

#### Artículo 17.– Pago de la subvención.

1.– El pago de la subvención se realizará fraccionadamente de la forma siguiente:

a) El 25% de la subvención concedida se efectuará una vez aceptada la subvención. Se entenderá aceptada esta ayuda, si transcurridos 10 días naturales desde la notificación no se formaliza la renuncia.

b) El 75% restante, tras la recepción y verificación de la justificación del total de la actividad subvencionada, que se realizará en los términos indicados en el artículo 18.

2.– El pago a suplentes del importe de posibles renunciaciones, se podrá realizar de una sola vez, por la cantidad total.

#### Artículo 18.– Justificación de la subvención.

1.– Las entidades beneficiarias de subvenciones deberán presentar, en los seis meses siguientes a la fecha de la finalización de la actividad subvencionada, y en todo caso antes del 31 de marzo del siguiente ejercicio, la documentación siguiente:

a) Informe detallado de la ejecución del programa, actividad o acción objeto de subvención.

b) Justificación documental de los gastos ocasionados por la ejecución del proyecto subvencionado.

2.– Sólo se admitirán justificantes en los que conste claramente el concepto generador del gasto, el ámbito temporal de su realización, así como la entidad u organismo emisor y el receptor del documento. Deberán presentarse documentos originales o fotocopias compulsadas.

3.– Salvo que concurra algún supuesto de modificación de las condiciones de la subvención, las cantidades a justificar deberán cubrir el 100% del presupuesto presentado.



**19. artikulua.**– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero -betiere, dirulaguntzaren helburua bete bada- eta, kasuan kasu, edozein erakunde pribatu nahiz publikotik bestelako laguntza edo laguntzak jasoz gero, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzea egoki izan daiteke. Horretarako, Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiak aldaketa egiteko ebazpena emango du eta bertan adieraziko du nola egokituko diren emandako dirulaguntzaren zenbatekoak.

2.– Edozein arrazoi dela-eta, diruz lagundutako programak, jarduerak edo ekintzak ezin badira eskaeran adierazita bezala gauzatu, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari eman beharko zaio horren berri. Kasu horretan, eta ez bada egokia dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, Lehendakaritzako idazkari nagusiak erabakiko du, ebazpen bidez, emandako dirulaguntza itzuli beharko den.

**20. artikulua.**– Ez betetzeak.

1.– Baldin eta gastuak ez badira dekretu honetan esan bezala justifikatzen, aurkeztutako datuak faltsuak badira, jasotako dirua eskaeran adierazitakoa ez den beste ezertarako erabiltzen bada, edo dekretu honetan nahiz urteko ebazpenean emandako baldintzak ez badira betetzen, une horretara arte jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, interes legalak gehituta. Hala agintzen dute Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. tituluko dirulaguntzak itzultzeko prozedura orokorrak.

2.– Laguntza hauek dakartzaten betebeharrak ez betetzeak zigor espedientea abiaraztea ekarriko du. Ez betetzea oso larritzat jotzen bada, zigorra ekar dezake, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen 1/1997 Legegitza Dekretuaren 63. artikulua agintzen duenaren araber.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Prozedurari buruz dekretu honetan xedatu ez dena ebazteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratu da uztailaren 9ko 410/1991 Dekretua, Akitania-Euskadi Lankidetzaren Funtsari buruz-

**Artículo 19.**– Modificación de las condiciones de la subvención.

1.– Toda modificación de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos, por la Secretaría General de la Presidencia se dictará la oportuna Resolución de modificación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

2.– Si por cualquier motivo, los programas, actividades o acciones subvencionados no pudieran ejecutarse en los términos contemplados en la solicitud, tal situación deberá comunicarse a la Secretaría General de Acción Exterior. En ese caso, y cuando no proceda la modificación de la Resolución de concesión, el Secretario General de la Presidencia, mediante Resolución adoptada al efecto, determinará, si procede, el reintegro del importe concedido.

**Artículo 20.**– Supuestos de incumplimiento.

1.– La falta de justificación de los gastos en los términos establecidos en el presente Decreto, la falsedad de los datos presentados, la aplicación de la cantidad recibida para distinta finalidad a la propuesta en la solicitud, o el incumplimiento de las condiciones establecidas en el presente Decreto o en la Resolución anual de convocatoria, dará lugar a la devolución de la subvención percibida hasta ese momento mas los intereses legales, de conformidad con lo establecido en la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Procedimiento General de Reintegro de las subvenciones previsto en el Título II del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

2.– El incumplimiento de las obligaciones que se deriven de estas ayudas, previo inicio del correspondiente expediente sancionador, podrá ser declarado como infracción muy grave, pudiendo dar lugar a sanción de conformidad con lo establecido en el artículo 63 de Decreto Legislativo 1/1997, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

En lo no previsto en el presente Decreto en materia de procedimiento, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 410/1991, de 9 de julio, del Fondo para la Cooperación Aquitania-Euskadi,

koa, bai eta irailaren 21eko 268/1993 Dekretua ere, aurrekoa aldatu zuena.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

**Bigarrena.**– Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera izango dute interesatuek, Euskadiko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, hala agintzen baitute administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b) eta 46.1 artikuluek.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko martxoaren 18an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

#### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1842

**HUTSEN ZUZENKETA**, ondoko dekretuarena: 35/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako herri-ikas-tetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuaren 24.2.a) artikuluan xedatzen denez, testuingurutik erraz argitzen diren hutsak eta omisioak eta, ondorioz, xedapen, egin-tza edo iragarkien esanahia aldatzen ez dutenak, argitaratzeko agindua eman duen organoak konponduko ditu, nahasbiderik ez sortzeko komeni denean. Horretarako, testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratuko du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

2008ko martxoaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (47. zenbakia) argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako herri-ikas-tetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duen martxoaren 4ko

y el Decreto 268/1993, de 21 de septiembre, de modificación del anterior.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**– Contra el presente Decreto las personas interesadas podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, conforme a lo establecido en los artículos 10.1.b) y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2008.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

#### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

1842

**CORRECCIÓN DE ERRORES** del Decreto 35/2008, de 4 de marzo, por el que se regula la admisión de alumnado en los Centros Públicos y Privados concertados de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional de Grado Medio y de Grado Superior, de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 24.2.a) del Decreto 155/1993, de 1 de junio, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituya modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores de dicha índole en el texto del Decreto 35/2008, de 4 de marzo, por el que se regula la admisión de alumnado en los Centros Públicos y Privados concertados de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional de Grado Medio y de Grado Superior, de la Comunidad Autónoma del País Vasco,